

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainak 28

50 urte igaro dira Stonewallen (New York) lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan.

10 urte geroago, 1979ko ekainaren 10ean, Euskal Herrian, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 hartan LGTBI pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartu zituzten estreinako aldiz, eta euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatu zuten.

Stonewalleko gertakariez geroztik, ekainaren 28an, LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko dagoen guztia aldarrikatzeko eguna ere.

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, une historiko aparta bizi dugu. Mundua astindu du, gure bizimoduak hankaz gora jarri dira eta "normaltasun berri" batera itzultzeaz hitz egiten entzun dugu. Hala ere, LGTBI pertsonak bezala gure jendarte ereduak ezartzen duen arauarekiko disidenteak direnentzat, itzulera horrek diskriminaziora eta bazterkeriara itzultzea ekar dezake. Diskurtso-esparruak, konfinamenduaren kudeaketak eta deseskaladak dagoeneko erakutsi dute zerbait berrirako bide hori betiko ikusezintasunaz eta arretarik ezaz beteta egon daitekeela, hain zuzen ere, diskriminazio gehien jasaten duten kolektiboek begira.

Konfinamenduak eragin negatibo espezifikokoak ekarri ditu LGTBI pertsonentzat, eta argi dago ondorengo krisi sozioekonomikoak eragin horietan sakondu baino ez duela egingo. Pandemiaren aurretik zeuden errealitateak puztu egin dira: LGTBI pertsona askok indarkeria jasan dute haientzat seguruak ez diren etxeetan bizi behar izateagatik; beste batzuek arazoak izan dituzte osasun-zerbitzu espezifikoetara edo, oro har, zerbitzu publikoetara iristeko; jazarpen handiagoa jasan dute kaleetan edo lanean, eta, oro har, beren osasuna okertu, eta estres psikologikoa eta emozionala areagotu egin da, gainerakoek baino neurri handiagoan. Bazterkeria, prekaritatea eta diskriminazioa direla eta, ondorio negatiboak biderkatu egiten dira, adina, klasea, arraza edo egoera administratiboa bezalako beste ezaugarri batzuk kontuan hartzen ditugunean.

Erakunde publikoetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaurgarrienek eskubide horiek izan ditzaten. COVID-19aren garaian ere egin behar dugu: krisia ezin da aitzakia izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude "normaltasun berri" hori garai hobe bat izan dadin, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat.

Horregatik, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu Euskal Herriko LGTBI kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak.

Horregatik, **Hernaniko Udaleko Udalbatzak konpromisoa hartzen du** honako hau egiteko:

- 1) LGTBI komunitateak Hernanin izan duen bilakaeraren egoera ezagutarazteko, martxan dagoen "Hernaniko LGTBI+ historia 1969-2019" ikerketaren zabalpena egitea, herritarren eskura jarritz.
- 2) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola, administrazio-formularioetan aldaketak egiten jarraitzea binarismoa gainditzeko.
- 3) Herriko saltoki eta tabernetan, kontzientziazio eta formazio kanpainak egitea binarismoaren inguruan, eta instalazio publikoetan aldagelak eta komunak egokitzeko anketa abiatzea.
- 4) Hernaniko Udalak Erregistro Zibilar eskatzen dio sexu bereko bikoteekiko diskriminatzailea den baldintza bat — ezkontuta egon behar dute jaioberriak inskribatzeko— ezabatzeko.
- 5) Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LGTBIren inguruko Euskal Lege Integral bat prestatzeko.
- 6) Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LGTBIren Euskal Kontseilua sortzeko, espazio hori eragile sozial publikoen eta pribatuen parte-hartze aktiborako gune izan dadin.

Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten, bereziki ekainaren 28an bertan Donostian egingo den kontzentrazioan parte hartzeko.

Denontzako askea eta bidezkoa den Euskal Herri baten alde!

Hernanin, 2020ko ekainaren 25ean